

AKTA

Bilera eguna: 2012.11.15

Bilera tokia: Kultur Etxea

Bertaratuak: Amaia Urkola, Joanna Domingo, Iñaki Iturain, Maria Illarramendi, Alberto Agirreazaldegia, Olatz Olariaga, Garbiñe Manterola, Imanol Manterola, Pello Orbañanos, Eneritz Odriozola, Miguel Nacenta.

Hasiera ordua: 19:00

Bukaera ordua: 21:00

Gai ordena

1. Mugikortasun dokumentuaren aurkezpenaren balorazioa
 2. Ikasturte berriko topagune berdearen martxa
 3. Agenda 21eko diagnostikoa
-

Bileraren garapena

1. Mugikortasun dokumentuaren aurkezpenaren balorazioa

Orokorrean balorazio oso positiboa. Alderdietako ordezkariak jarrera ona dokumentuarekiko eta aurkezpenarekiko. Konpromisoa ere hartu zutela zirudien.

Epeak eta erantzunak beharrezkoak direla jo dugu. Gure proposamenei erantzunak epe motxean ez emanez gero topagune berdean eginiko lana aintzat ez hartzea litzateke eta hau udalari adierazi egin behar zaio.

Erantzunaren programa noizko izango den galdera eginaz hiru partiduei idatzi bat bidaltzea adostu da. Garbiñek idatziko du testua.

Aurrekontuak garatzeko garaia da eta garrantzitsua da partiduek mugikortasun plana kontutan izatea.

Alberto: nahiz eta egoera ekonomikoa ona ez izan gauza batzuk egin egin daitezke. Imanol: gauza batzuk auzolanean egin daitezke.

Pello: udalari helarazi behar balorazio ona egin dugula, baina beraien erantzunaren zain gaudela.

2. Mugikortasunaren gaiari dagokionez beste zenbait puntu

Arostegi tailerraren ingurua: lotsagarria da gaur egungo egoera. Udalari esku hartzeko eskatu behar zaio. Portuetako zuzendaritzaren ardura omen da eta Albertok zuzendaritzakoekin hitz egin du. Tailerrekoek lan egiteko kontzesioa dute baina ez aparkatzekoa. Udaltzainek multak jarri ditzakete. Kontzesioa 3 urterako dute eta 2014. urtean amaituko da.

Olatzek esan du udaletik agundua emana zaiela lanegunetan eta laneko kotxeak soilik aparka ditzaten.

Kotxeez aparte bidoiak, burnizko xaflak etab. Daude barreiatuak.

Arostegi tailerraren puntu beltza egonagatik ere mugikortasunaren planak aurrera jarraitu behar du.

Miguel Nacenta: ostegunetan azoka herriko plazan egiten denez moila

inguruan ostegun goizetan autoak pilatzen dira. Garbiñe: azoka egunetan Endaia plazako aparkalekuak erreserba ditzakete azokako saltzaileetat.

Olatz: Bordatxoko aulkien kokalekua negoziatzen ari dira jabeak eta udala.

Iñaki: kiroldegitik kirol gunera berrira (padle kantxen ingurura) eskailera batzuk eraikitzea.

3. Ikasturte berriko topagune berdearen martxa

Ikasturte berrian zehar gai monografiko berri bat jorratzea ideia ontza jo dugu.

Imanol: ingurune fisikoaren azterketa. Orioko ingurune fisikoaren azterketa: Motondo, errioz, balio paisajistikoak, hondartza, etab.

Garbiñe: Herriko balio naturalen inbentarioa egin eta zer egin daitekeen udalari adierazi.

Olatz: Mutiozabal inguruan zerbait egiteko diru-laguntza bat jaso du udalak eta proiektu bat ba omen dago. Maria: Farfaratik gai hau lantzeko proposamena dute.

Olatz: agenda 21eko diagnostikoa bukatzea proposatu, nahiz eta dokumentu oso orokorra izan.

Olatz: lanbidetik proposamena jaso du udalak. Ingurumen gaiak jorratuko lituzkeen eta udalean praktikak egingo lituzkeen pertsona bat egongo omen da martxotik irailera. Guk hark zer egin bidera dezakegu, again.

Alberto: mendi bideen inbentarioa egin eta horien zaintza. Iñaki: Kontxi Uriartek egin omen zuen. Olatz: dokumentu hori lortu eta inbentarioa berritu daiteke.

Abenduko bilerarako buruan ditugun gaiak jorratu eta bat aukeratzea erabaki dugu.